

BALIOZKOTZEAK

Baliozkotzeetan, prestakuntza bat gaindituta dagoela berresten da, beste bat aurkeztuta.

Baliozkotzea eskatzen bada, **nahitaez egon beharko da matrikulatuta** haren helburuko heziketa-zikloan.

Ezin da baliozkotzerik eskatu Lanbide Heziketako tituluak eskuratzeko probetarako; alegia, **proba libreetarako**

Ikasleak, nahi badu, **baliozkotze-eskaera aurkeztuko du, ikasturtea hasi baino lehen** edo, salbuespenez, eta epe hori amaitu ondoren matrikulatuz gero, matrikulatu den egunetik aurrerako **7 egun balioduneko epearen barruan**.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- [Behar bezala betetako inprimakia](#).
- Heziketa-ziklo bat egin izanaren ziurtagiri akademiko ofizial osoaren edo partzialaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
- Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak ezarritako prozeduraren bitartez lortutako profesionaltasun ziurtagiriaren edo konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialen jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
- Egokia suerta daitekeen gainerako dokumentazio baliozkoa.

[Hezkuntza ikuskaritza](#)

[Real Decreto 1085/2020](#)